



Ukrainan egindako ikasketen homologazioa eskatzeko jarraibideak

1

Beherago zehazten diren agiri akademikoen jatorrizkoak eta haien euskarazko edo gaztelaniazko itzulpen ofizialak badituzula egiaztatu ondoren, euskadi.eus atarira sartu.

Bete Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko tituluak edo ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko eskaera.

2

Deskargatu eskabidearen frogagiria..

Orri hori erregistroan aurkeztu beharko duzu beharrezko dokumentazio akademikoarekin batera. Aurkeztu ezik, ez duzula homologazio-espeditentea hasi ulertuko da. Dokumentazio guztia ez badago, Administrazioak falta dena eskatuko dizu.

3

Ebazpena aldekoa bada, abisu bat jasoko duzu egiaztatgiria ikasgunea.euskadi.eus atarian eskuragarri daukazula esateko.

Aurkeztu beharreko agiri akademikoak itzulpen ofizialarekin batera:

Batxiler titulua

- **Atestat pro zagal'nu serednyu osvitu** (Bigarren Hezkuntza Orokorraren Osoaren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera.
- **Svidotsvo pro bazovu zagal' un serednyu osvitu** (Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera edo **Svidoctvo pro nepovnu zagal'nomu serednû**

osvitu (Osatugabeko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera..

- Dagokion tasa ordaindu behar du.

Batxilerreko 1. maila

Baliozkotze hori ez dago aurreikusita

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua (DBHG)

- **Svidotsvo pro bazovu zagal' un serednyu osvitu** (Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera edo **Svidoctvo pro nepovnu zagal'nomu serednû osvitu** (Osatugabeko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera.
- **Bigarren Hezkuntzako 10. mailako noten ziurtagiri ofizialaren jatorrizkoa, legeztuta*** (Beharrezkoa da gradu hori gainditua izatea eta 11. mailara pasa izana).
- Aukerakoa: **7., 8. eta 9. mailako noten ziurtagiri ofizialaren jatorrizkoa, legeztatuta***. **Ikasmaita horiek urteka berezita egon behar dute, azken kalifikazioa atera ahal izateko.**
- Ez da derrigorrezkoa 7., 8. eta 9. maila dagozkien ziurtagiriak aurkeztea: ikasmaita horien ziurtagiri akademikoak aurkeztu ezik, azken kalifikazioa aurkeztu gabeko ikasmaita bakoitzari 5eko nota emanda kalkulatu da. Horrela kalkulatuak kalifikazioa ezingo da aldatu kredentziala eman ondoren, ezta aurrerago noten ziurtagiria aurkeztuko balitz ere.
- Horren harira, jakin behar duzu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu-tituluaren homologazioa lortzeko, gutxienez 10 urte akademiko eginda eta gaindituta eduki behar dituzula, Espainiako DBHko graduatu-titulua 10 ikasturte (Lehen Hezkuntzako 6 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4) bete ondoren lortzen baita. Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagirira arte bakarrik lortu baduzu (9 urte akademikoko programa bat egin eta gainditu ondoren lortutakoa), zure ikasketak gure hezkuntza-sisteman DBHko 3. mailaren parekoak dira, eta DBHko 4. mailan matrikulatu ahal izango zara besterik egin gabe.
- Ez duzu tasarik ordaindu behar.

DBHG titulua baino beheagoko ikasketak (2.a eta 3.a)

- Hezkuntza sistemako DBHko 2. eta 3. ikasmailatan sartzeko ez da baliozkotzerik egin behar.

*** Espainian aldi baterako babesaren onuradun direla egiaztatzen dutenek, Barne Ministerioak emandako ebazpenaren bidez, ez dute legeztatutako dokumentazioa aurkeztu beharrik izango.**